

LAU KAUSEN TEORIATIK TIRAKA

1.- Nik honela ordenatzen dut neure filosofia:

Filosofia teorikoa.

Filosofia praktikoa: Etika

Politika – zientzia fikzioa

2.- Filosofia teorikoarekin hasten naiz, eta oinarri oinarrizko teorizazioekin gainera, laburbilduz gero garatzen joango naizena. Hauxe diot:

a.-a.- Dena hasten da Socratesen filosofiakin: metodo inductiboa, definizio unibertsala

a.-b.- Platonismoan ezin hobeto intuitutako forma inmutableen cosmos goragokorik gabe, intuizioa ez baita demonstrazioa. Definizio unibertsala izango litzatekeen forma immutable hori (objektuaren esentzia) nik mutable egiten dut (materialistotik hori agerikoa da), eta ajuste bat egiten dut, immutable dela suposatuta egiten dut, (zeren eboluzioaren teoria egiazkoa ez den arren, mutabletasuna bada materialian ikasten, eta hortik unibertsaltasun egiazkoaren azpitik daude definizio guztiak, azkenak ere zeran teorian azkenik ez baitago cosmos material honetan, gure hizpide honetan bere potentzialitatea soilik hartzen badugu behintzat, eta horregatik hartzen ditut hipotesi bezala garaian garaiko definizioak). Hortara ba-

daiteke zientzia egiten hasi, baina sekula ez da, bistan dago, zientzia hori definitiboa (aurreratuz gero, adibidez, definizio hobek beti egiten ahal direlako), ez gara sekula iristen cosmos materialaren ezagutza unibertsalera (horregatik, zientzia materiala beti hasten delako indukzioz, ezin da falazian erori gabe imaginazio zientifikoa den eboluzionismorik deduzitu), ez gara sekula iristen cosmos materialaren ezagutza unibertsalera, cosmos honen esentzia ezagutzera, beste berba bat erabiliz.

a.-c.- Aristotelesen logika ere antzerakoa da, socratismotik garatua, cosmos materialeko objektuak ajuste batekin formalizatuak, arestian esandako moduan, eta ostean molde berean da ikertua.

a.-d.- Bertrand Russellen predikatuen logika ere (bat etorri zena Fregeren logikarekin) antzerakoa, ajuste horrekin formalizatuz gero operatu daiteke molde berean (beti jakin-nean gaudela egiazko unibertsaltasuna ezkutatu egiten zaigula, ezin ezagutu dezakegula). Aristotelesek argumentatua formulatan ipintzea da, besterik ez. Gertatzen da ezen formula horiek, garaian garaikoak, beti daudela, nire ajuste materialistarekin, egiazko unibertsaltasunaren azpitik (modu modernoan erranda erranen genuke indukzio perfekturik ezinezkoa dela cosmos honetan). Horrek ez dakar garai bateko formulazioekin (nahiz eta beti diren hobegarriak euren jatorriak diren definizioak), beti suposatuz definitiboak direla, horrek ez dakar kuantifikadore unibertsala sartzeko adibideak ez egotea eta hor daude predikatuen logikan ariketak horren gainean.

b.- Platonen dialogoetan ikasten den moduan Socrates sekula ez da iristen bere intelektua beteko zuen ikertutako objektuen definizio unibertsalera (nahiz eta Aristotelesek badiion Socratesi admititu definizio unibertsalaren lortzea). Eta Platonek cosmos goragoko bat intuitu zuen, forma inmuta-

bleena, eta halako forma jada bazen definizio unibertsala objektu material batena, edo beste batena (oro har hartuta), eta hor jada zientzia posible zen. Aristotelesek cosmos goragoko hori aintzat hartuz forma inmutableak itsatsi egiten zituen bakoitza bere objektu materialari (hylemorfismoa), eta hor jada bazen posible zientzia egitea. Baina definizio unibertsalak ziren forma inmutable horiek, objektuen esentzia adierazten zutenak, eta nola cosmos material honetan ez diren, dena baita mutablea, nik hartzen ditut nola hipotesis bezala lan zientifikoa egiteko (eta beti hobegarriak direlako, beraz inperfektuak beti; ez bakarrik socratismoan, baita predikatuen logikan ere, hau da, predikatuen logikan ipiniz gero dira bariable horiek hipotesiak bezala operazioetan, suposatzen dugularik egiazko definizio unibertsalak direla, beraz egiazko unibertsaltasun batetik beti azpian), eta hortik, hasten baldin banaiz ere metodo induktiboarekin, logika formala egiten ahal dut, predikatuen logika hain zuzen ere, eta hor badaude ariketak kasu partikularretatik abiatuz (kuantifikadore partikularra edo esistentziala), restriktzioa salbatuz, unibertsal bihurtzeko (kuantifikadore unibertsala sartzeko), eta kasu paradigmatikoa da triangeluarena (edozein triangeluren definizioa beti da bera). Baina formalizatzerakoan nola beti abstraitu egiten dugun materiatasuna, sekula ez gara iristen, definizio gero eta hobeak egiten ahal badira ere, hain zuzen horregatik sekula ez gara iristen cosmos materialaren definizio unibertsalera, egiazki hitz eginez ez dago modurik, beste molde batean esanda, cosmos material honetako ezer, materialismo estrikto batean, unibertsal bihurtzeko (hori misterioa da), eta erraza da arrazoa ematea, cosmos materiala mutablea da berez, aldatze bat da etengabea, eta ez dago modurik aktibitatea den cosmos material hau ezagutzeko unibertsalki. Zientzia baina, metodo hipotetiko deduktiboaz (zienziaren edozein unetan suposatu egiten dugu egindako objektu materialen definizioak unibertsalak direla, hau da, suposatu egi-

ten dugu definizio horiek inmutableak direla, inmutable izan ez arren materialismoaren perspektibatik ikusita, eta nik neure ajustea hemendik egiten dut) eta zientzia baina metodo hipotetiko deduktiboaz egiten ahal da (suposatu ostean termino bat objektu material baten definizio unibertsala dela, eta hola garai bakoitzekoak, eta hor unibertsal bihurtzea ere posible bada, badaude ariketak kuantifikadore unibertsala sartzeko, baina erroan objektu materialak dira metodo socratikoarekin definituak), eta zientzia hori beti da hobegarria, eboluzionagarria delako beti da taraduna, bere helburu maximoa tratatua duelako ezinbestez. Azken teoriaren ametsa bete ezina da derrigorrean, ezinbestez.

c.- Platon idealista (idea grekeraz forma da) zerura begira dago, Aristoteles idealista ere lurrerago, eta ni, idealista intuizioz ez naizen hau materiari begira (ez ditut zientziaren edozein momentuko definizioak definitibotzat hartzen, baina ez kontradikzioaren prinzipioa aintzat hartzen dut beti (zientzia egiteko oinarrizko modu bakarra baita), eta hartzen ditut, adibidez, gaur egungo zientziaren definizioen unibertsaltasuna ez definitibotzat eta bai hipotetikotzat, baina ez forma inmutable bezala, definizio zehatzagoak beti direlako posible). Eta beste bide batetik topo egingo dut aristotelismoarekin, eta to mismoarekin ere. Geroago ikasiko den moduan. Bitartean materialismo estrikto batetik dihardut nire socratismoa lantzen, eta bide direkto batetik gainera platonismoarekin eta aristotelismoarekin ere. Alde bakarra da hau: ni ez noa idealismoaren bidetik, forma inmutableen cosmos inteligible hori izan daiteke eta da intuizio ezin hobea, baina ez derizot demostregarria denik. Materialismo estrikto batetik ez naiz ateratzen.

d.- Guzti hori (berririo diot); socratismoaren definizio unibertsala bilatzeko moldea, eta nola definizio unibertsal perfektuak ezinezko diren orduan unean uneko definizioak dira niretzat inmutable balira bezala, hori da metodo hipotetiko-

ren hastea, izanik hori modu bakarra zientzia egiten hasteko; baina definizio hoberik beti da posible, eta hori da nire modua kausa formala komprenitzeko cosmos material honetan, nondik ez dudan intuiziorik egiten beste goragoko batera (materialismo estrikto baten barruan murgilduta nago). Eta predikatuen logikan kuantifikadore unibertsala sartzeko modua, materialismo estriktoan ezinezkoa, baina formalizatu ostean (bariableak diren objektuen definizioak unibertsaltzat hartuz, izan ez arren) posiblea da restriktzioa itxiz gero, eta ariketak badaude. Beraz guzti hau (kausa formalaren inguruan egiten dudan ajustea edo aktualizatzea), oinarria dena (ezagutzaren teoriaren oinarria), bai filosofia teorikoan eta bai praktikotan ere aplikatzen dut. Bien derroteroak ezberdinak diren arren, jakina. Parte honetan nire filosofia teorikoa azaltzen dihardut.

3.- Jainkoak, Abrahanen Jainkoak, esaten dio Moisesi Bera dela den Ha, el que es, Yhave. Hortik salto egin daiteke Parmenidesen izaerara, zeina inmutablea den. Horregatik ezin izan daiteke cosmos material honetakoa. Eta beste salto bat eginez goazke Platonen forma inmutableen cosmosera, baina Platonen maisu Socratesek metodo induktiboaz definizio unibertsala bilatzen zuen termino etikoez, eta baita objektu materialez, eta definizio bat, suposatzen badugu unibertsala dela orduan inmutablea da (estudiatutako objektuaren esentziaren berri ematen du), eta guk soilik holaxe, objektu material baten inmutabletasuna suposatuz (errepikatzen dut: suposatuz) teoriak eta zientzia, oro har, egin ditzakegu. Eta, amaitzeko, hor dugu Aristotelesen kausa formala: ba omen dago formen emale bat zeina baitago cosmos nagusi horretan, cosmos inteligible horretan, eta horregatik cosmos material hau inteligible egiten zaigu, baina, nik diot, sekula ez osoro, zeren objektu materialak mutableak baitira eta lana baita kausa efizientea, objektu materialen, oro har, definizio unibertsalak ondorioztatzeko, gero eta zehatzagoak, behintzat eboluzio zientifikoa beti bada

aurreratzekoa, baina definizio unibertsal horiek definitiboak baino suposamenak dira beti cosmos material honetan, eta ezin izan daiteke beste moduan egin zientziarik seriotasun minimo batekin. Eta hori da nik egiten dudana ajuste materialista, zeren materia oso aintzat hartzen baitut. Niretzat Aristotelesek platonismoaren ordenazio bat egiten du, ordenatu egiten du platonismoa, eta horregatik idealista ere bada bere maisuaren moduan.

4.- Ferrater Moraren “diccionario” filosofikoa ikusten egon naiz, analisisiaz eta sintesiaz hain zuzen ere irakurtzen, eta jui-zioaz, eta ondorio honetara iritsi naiz; badaiteke juizio sintetikoko bat a priori bezala ezagutu, definitu, Jesusen mirari bat, signo bat (ez da ahaztu behar Kantek erabiltzen dituen termino horien interpretazio diferenteak eremu semantiko berean daudela, balekoa da, beraz, nire definizioa). Eta Haren (Trinitate guziz Santuaren) signorik handiena izan da kreazioa.

Dudatzen ibili izan naiz eta ohartu naiz, “diccionario” horri begira, filosofian aditu oso onak daudela, eta ez dut nire lana alferrik egindakotzat hartzen, hain zuzen ere, ni baino hobeak ere badaudelako. Ona da besteak norbera baino intelgentea-goak direla pensatzea, nahiz eta horregatik ez den zertan albo batera laga behar norberaren lana, eta ikerketa. Aseguratu nahi baitut nire aportazioa.

5.- Aristotelesen lau kausak: materiala, formala (ideala grekeraz), efizientea eta finala. Nik ondo egina ikasten dut ordenazio hori, baina honela interpretatzen dut problema, honela aktualizatzen dut. Kausa materialak materiaz hitz egiten digu, cosmos materialaz, eta ez da preexistentea, hau da, materia potentzialitatea bada, potentzialitaterik maximoena ezereza da niretzat, beraz materia, cosmos material hau, eta bertoko guztia kreatua da. Eta cosmos materiala, materiaren definizio unibertsalik ezin dugu lortu cosmos honetan, materia, laburbilduz, mutablea delako, ez dugu ezagutzen igarotze

etengabeko horren esentzia, beste termino bat erabiliz. Baina ondoren kausa formala daukagu estudiogai. Nik hor hasten dut ikerketa, estudioa, argi lagaz materialista naizela, eta kontuan hartuz abantaila bat dugula, hau da, cosmos materiala ez da erabat Heraclitok definitzen zuen moduan, isuri etengabe ininteligiblea, ez, presentatu egiten zaigu bizi gaitezentzat formaltasun batez ere, eta hor badezakegu ikertu kausa formala. Mutablea da materia, baina formetan ageri zaigu (fenomenoak ere forma bezala, forma mota bat izan daitezke), eta forma horien definizio unibertsalak bilatzen ditugu, eta ezinezkoa denez perfektuki (beti hobetu daitekeelako definizioa, mutabletasun horrengatik hain zuzen), orduan garai bakoitzean suposatu egiten dugu ikertutako definiziorik hoberenak unibertsalak direla, eta hor jada badugu kausa formala definitua hipotesian (beti egiazko materiaren ezagutza unibertsalaren azpian, eta horrela hasten gara kuantifikadoreen logikan, eta prozesu bera gertatzen dela konturatzen gara, formekin teorizatzen dugu, operatzen dugu, eta deribazioak irekitzen ditugu sarritan, suposamenak direnak, hipotesiak, baina ez gaudela hor kuantifikadore unibertsalean esango genuke logika formalean). Eta suposamena da hipotesis bat bezala, eta hor hasten ahal da metodo hipotetiko deduktiboa (bada posible bariabileak inmutable direla suposatuz unibertsal bihurtzeak egitea, predikatuen logikan egiten ahal diren moduan, baina egiazki, materialismo estrikto batean gaudela ez badugu ahazten, unibertsal bihurtutako teoria horiek egiazko unibertsaltasunaren azpian daude beti, nik uste dut erraz conprenitzen ahal dela hori, hain zuzen ere hipotesien ikerbidetik goazelako). Kausa efizientea da niretzat intelektuaren lana, beharra, potentzian dagoen ezagutza aktualizatu egiten duena garai bakoitzean (alferkeriak atzerakadak ekartzen ahal ditu, hobe esanda, ekartzen dituela ere afirmatuko nuke). Eta kausa finala da cosmos goragoko horretan dagoen Zeruetako Erreinua, non Dibinitatea dagoen (guk ez dugun

ezagutza unibertsal hori, materiarena interesatzen zaigu, baduena, eta hori demostragarria da, probidentziala delako hain zuzen). Hau da, niri asko gustatzen zaidan komparazioa eginenez, Harek faroa markatzen digu, eta faroa ahaztu ez dezagun ezinbestekoak ditugu abadeak, mojak, hermanoak eta hola, abade katolikoak, hierarkia katolikoa, aita santua dela buru. Gu laikoak gara, herri sazerdotala baina laikoak, eta badugu norabide bat, gorabeheratsua, baina norabidea.

Nik egin dudan aristotelismoaren ajuste hori ez dago kontrajarria ez san Agustinen platonismoarekin ezta tomismoarekin ere. Azken batean Aristotelesekin ordenatu bazuen platonismoa, nik, ezagutza berriekin, aristotelismoa, tomismoa, ordenatu egiten dut, besterik ez, ordenatu egiten dut perspektiba materialistago batekin, hau da, materia (gu materialistak gara) oso kontuan hartuz.

6.- Gero hor dugu beste teorizazio bat: intelektu pasiboa eta intelektu aktiboa. Eta intelektu pasiboa aktiboa jartzen da intelektu agentearen bitartez. Hori aristotelismo garbia da, eta tomismoan jasoa dago. Nik hau esaten dut: intelektu agentea lana dela, baina, lanaren kultura nondik datorkigu?, hain zuzen ere, Errebelazioaren Historiatik, Jainkoaren agindua da, hasierako liburuan zigorra, gero, gaur egun, bihurtu da baita eskubide ere. Eta Errebelazioaren historia da Testamendu Zaharra, Testamendu Berria eta Elizaren Historia ere (hor ditugu Opus Deikoak, lana kontsideratzen dutenak otoi-tza ere), eta mediebotik badatorkigu esaera hura: "ora et labora". Eta hola, zeren ni ez naiz espertoa asunto horietan. Baina hemen ere ikasten ahal da nola nik ez dudan apurtzen teorizazio kanonikoekin, hau da, agustinismoarekin eta tomismoarekin, kontinuitatea da nire filosofia, katolikoa dena. Denok gara diferente, eta ni honela ari naiz (eta seguridadea edukitzeko prest nago nire filosofia ukatzeko, eta ez masokismoagatik, eta bai espero dudalako argitze definitiboa, cosmos honetan ezin dena zeren gure ezagutza sekula ezin izan baitaiteke

unibertsala cosmos materiala dugunean estudiogai, hor daku-sat nik tara bat guztion baitan, bekatu jatorrizko bezala ere ezagutzen dena zirkulu teologikoetan, non ni ez naizen sar-tzen, eta hortik norberaren buruaren ukazioa ez izatea maso-kismoa).

7.- Mater materia. Gu materiazkoak gara, eta gure norta-suna, gure bakoitzaren principium individuationis delakoa, gure materiazko izaera misterioetsuan gauzatzen ei da. Nola ezagutu dezakegu gure materiazkotasuna gero eta gehiago? Hain zuzen, kausa formalaren bitartez, zeina infinituraino, potentzian, ezagutzen joan gaitezkeen, gero eta zehatzago. Guk badakigu gure ezagutza infinitua potentzian bezala dela, hau da, beti dago zer hobetzerik, beti da gure ezagutza im-perfektua, sekula ez gara iristen ezagutzera aktoan, hau da, infinitua aktoan balitz ezagutza unibertsal hori ezkutatu egi-ten zaigu. Eta ezagutzari dagokionez infinitua aktoan, hori ja-da cosmos honetan ezinezkoa dugu ezagutzea, gure izaera bakoitzaren ezagutza unibertsala izango litzatekeelako ere, gurea eta beste guztiarena. Beraz, gure forma baldin bada gure arima, egiazki modu unibertalean ezagutu bakarrik eza-gutzen du, gaitu, Jainkoak, ez potentzian (guk ezagutzen du-gun moduan) eta bai aktoan.

Nik diodana bateragarria da, agian aldaketa batzuk, txikiak, ajusteak, ipinita, bateragarria da aristotelismoarekin, tomismoa-rekin. Substantziaz esaten denarekin, kausa materiala eta kausa formala nola dauden objektuetan batasun perfektu batean, substantzia esaten zaiolarik halako batasunari.

8.- Principium individuationis delakoaz, dagokiena bizidu-nei, zerbait esan nahiko nuke. Eskolastikan afirmatzen da ezen kausa formalean baino kausa materialean dagoela. Ari-maz, oster, esaten da kausa formala dela, bizidun bakoitzaren forma dela, bizidun bakoitzaren materiaren aktoa ere. Grekeraz forma da ideia. Hortik dator idealismo bezala eza-

gutzea aristotelismoa. Baina kausa formalaz nik baditut neure teorizazioak, hasten direnak metodo socratikoarekin. Eta bilatzen dut objektu material bakoitzaren definizio unibertala. Hori baina ezinezkoa da cosmos material hutsean (ni ezin naiteke hasi mirariekin nire ikerketa hau, materiazkoa bainaiz, eta materialista), cosmos material hutsean objektu material baten definizio unibertsala, egiazki unibertsala baino da, nire teoriaren arabera, hipotesis bat, eta hipotesis horretan nik suposatu egiten dut definizio hori, hobegarria beti dena, suposatzen dut definizio hori unibertsala dela, inmutablea beraz, eta hor jada zientzia egiten hasi naiteke. Baina, esana dut, egiten dudana zientzia beti da hobegarria. Nonbait infinitua potentzian da cosmos material hau zientziari dagokionez. Beti dago, edozein dela hartzen dudana zientziaren unea, beti dago zientzia hoberik, hain zuzen ere, beti definizio zehatza goak egiten ahal ditudalako. Bizidun baten definizio unibertsala lortzea egiazki ezinezkoa da cosmos material honetan, hor tara bat dugu nabari-nabaria. Baina Jainkoak badu halako bizidun bakoitzaren definizio unibertsal hori, guretzat misterio dena, baina Harentzat ez, eta ezagutza unibertsala du Jainkoak, cosmos material honena eta baita bizidun guztiena, banan-banan, denona (denok baikaude cosmos material honetan). Haren baitan zientzia ez da nola infinitua potentzian, sekula ez dena iristen bere helmugara, eta bai da Haren zientzia nola infinitua aktoan, helmugan dago jada betidanik, horregatik da “formen emailea”, formen emaile perfektua (Bera da eta Santu den bakarra).

Esan dugu principium individuationis kausa materialean dagoela, baina arima kausa formala bada gehiago, nola Jainkoarentzat kausa formalaren ezagutza unibertsala posible den, garbi dago hori, orduan, ariman, hil eta gero, bada principium individuationis ere ageri, nahiz eta hori kausa materialaren gainean kokatzen dugun, hiltzean usteltzen eta hauts bihurtzen den gure materiazkotasunean. Eta arima, hiltzean,

separatu egiten da kausa materialetik, zeina usteldu egiten den, hautsa bihurtu. Baina bakoitzaren arimak badu bere principium individuationis delakoa, bakarra egiten duena, humanoen kasuan ikasten den moduan bizirik gaudenean, hau da, denok garela diferente. Eta beraz ia ez zaio ezer falta arima bati bizidun izateko (substantzia da bizidunen ezaugarria, hau da, arima eta bere materia bat egina dagoenean), baina nik ez dut uste nire buruaren kontzientzia galduko dudarik hiltzean. Jainkoa bakarrik bada ere nire burua perfektuki ezagutzen duena, eta hortik nire, eta bizidun guztien, principium individuationis ez galtzea hiltzerakoan. Eta berpiztea, misterio bazaigu ere, erraza ematen du dela.

9.- Nire amaren partetik nik banuen osaba bat frantziskanoa zena eta Argentinan edo Paraguain zegoen misiolari (nik behin banion karta bat bidali bertara joateko mediku baina ez zidan erantzun) eta harek esaten zuen Vatikanoko bigarren Kontzilioak aldaketak zekartzala, eta oraindik “ekarri behar zituenak...”. Ez da Elizaren betiko mezua aldatzen, baina bai aktualizatzen. Berdin gertatzen da nire filosofiakin, nik esaten dut ajusteren batzuk egiten ditudala, baina termino aristoteliko bat erabiliz ajuste hori (edo horiek) interpretatua izan daiteke nola aktualizatze bat.

10.- Nik ikuspegi materialistagoa hartzen dut, baina Platonen larregiko heracliteismoa alde bat uzten dut, zeren cosmos material hau ez baita isuri etengabe bat, eta horregatik ez dut ondorioztatzen inintelligiblea dela erremedio barik. Nik aristotelismoaren kausa formala honela ulertzen dut: objektu materialak forma mutabletan ageri zaizkigu, beraz inteligible egin dakigun objektu material bat (alde bat lagata Platonen intuizioa beste goragoko cosmos horrena, non forma inmutableak dauden, inteligibleak beraz), beraz objektu material bat inteligible egin dakigun, materialismo hutsean gaude, suposatu behar dugu ezen gure objektu bati buruzko aberiguazioetan aurkitu dugun definizioa unibertsala dela. Hipotesis bate-

kin hasten gara beraz, zeren egiazki ez baita gure ikerketa in-dukzioa definizio unibertsal batera iristen, baina suposatu egiten dugu, diot berriro, eta hor jada posible da zientzia egi-tea, nahiz eta zientziaren lehen momentu hori hipotesis bat den egiazko ezagutza unibertsalaran azpian dagoena. Horrek jada erakusten digu ezen zientzia materialean, asko aurreratu badaiteke ere definizioetan, ezinezkoa dela unibertsal bihurtzea, behintzat egiairi hur eman nahi badiogu, eta hori da gu-re lanaren funtsa, sekula amaitzen ez dena cosmos material honetan, hobeto definitzerik, zehazterik, beti delako posible. Ez dugu, hitz batean, cosmos materialaren ezagutza unibertsalik, ez dugu igarotzea den cosmos material honen esen-tziaren ezagutzarik, beste termino bat erabiliz. Eta misterio zaigu ezagutza hori, zeina definizioz pribaziogabea den, eta nola pribazioa den gaizkiaren kausa orokorra, horrek ekar-tzen gaitu ondorioztatzera ezen cosmos honen ezagutza uni-bertsala misterio santua dela.

Baina aurrera joan gaitezke. Eta logika formalaren atal ba-tean sartzen ahal gara, predikatuen logikan hain zuzen ere. Eta hor antzerako procesu bat gertatzen da, batez ere kuantifika-dore unibertsala sartzeko baldintzarekin. Dakitenek badakite ezen restriktzio bat salbatu behar dela kuantifikadore partikula-rretatik (indukzioa da hori) kuantifikadore unibertsalera igaro-tzeko (definizio unibertsala ematen du horrek). Beraz, lehen momentuan suposatu ditugu gure definizioak unibertsalak di-rela (ez izan arren) eta bigarren momentuan formalizatutako termino horiekin kuantifikadoreen logikan operatzen ahal du-gu, eta formulatu fisikazko legeak ere (kuantifikadore unibersala sartzea hori litzateke). Baina oinarrian badakigu ezen kuantifikadoreen logikan erabiltzen ditugun terminoak ez dire-la inmutableak (hau da, euren definizioak hobegarriak direla beti) eta beraz halako unibertsal bihurtzeak, zientziaren une diferenteetan egiten direnak, ez dizkigute materiaren esentzia erakusten. Gehienik jota materiaren partikularitateak erakusten

dizkigute, baina sekula ez cosmos materialaren ezagutza unibertsal hori, zeina baita egiazki bilatzen duguna. Erdi aroko harri filosofalaren modukoa, edo niri gustatzen zaidan konparazioa eginez faroarena egiten diguna gure nabigazioan cosmos material honetan zehar. Baina teorizatu badugu ere besterik ez da baizik eta teorizazio huts bat. Ez dago cosmos izarratu honetan hori, ezin egon daiteke.

11.- Orain arte nekatu gabe azpimarratu dudanarekin ikasten ahal da ezen nik socratismotik datorren filosofiaren garapena, aristotelismoa eta tomismoa, hustu egiten dudala Platonen intuiziotik, hau da, nik ez dut demostragarria ikasten intuizio hortatik ondorioztatzen den cosmos goragoko bat, forma inmutableen cosmos hori, cosmos inteligible hori. Eta kausa formalari astindu bat eman diot, materiaren mutabletasunaren teoriaren begietatik, eta potentzian beti ikasten dut hobegarria dela kausa formalaren ezagutzea, beti baita posible, materialismotik hartuta problema, definizio hobek egitea, eta hortik zientzia ere hobegarria da beti, hau da, beti gaude cosmos material honen ezagutza unibertsalaren azpian. Gehiago oraindik cosmos material honen ezagutza unibertsala daukagu ezen izatekotan beste cosmos goragoko batean izan behar dela. Baina, berriro diot, berriro errepikatzen dut, intuizio batek ez du balio cosmos goragoko horretan sinesteko, intuizioa, oso ona izanda ere, ezin hobea, dieran jotzen duen gezia bezalako, sekula ez delako demostrazioa.

12.- Baina historia orokorraren barruan bada gertatu errealazioaren historia Oriente bezala ezagutzen dugun inguru geografiko desertikoetan, eta hor bada jasotzen ahal figura nagusi bat, Jesus Nazaretekoa. Zergatik?, zeren Harek signoak egiten zituen. Eta aurrerago esan dut ezen signo baten definizioa izan daitekeela, Kanten terminologia hartuz, juizio sintetiko bat a priori. Jesusek esan esaten du eta Berak esana izaten da momentuan bertan ere (Bere heriotzaz eta piztueraz

ere bazituen a priori informatu apostoluak). Ez da juizio bat Kantek zehazki konprenitzen zuen moduan, juizio hori beste modu askotan conprenitzen ahal da, eta conprenitzeko modu bat da ezen juizioan esaten dena materializatu egiten dela, realizatu, eta signoen kasuan gainera juizio hori sintetikoa da (ongia dario beraz, osagarria delako) eta a priorizkoa, hau da, ezagutza unibertsala erakusten duela (hortik ere ongia dario, ezagutza unibertsala ezagutza santua delako). Beraz, guk arestian, nekatu gabe, demostratu dugu ezen ezagutza unibertsalik ezinezkoa dela cosmos material honetan, baina Jesusek, Bere signoekin, badu demostratzen Berak baduela ezagutza unibertsal hori, erakutsi ez badigu ere. Zer ondorioztatzen ahal da hortatik?, Jesus, eta Bere ezagutza, ez dela cosmos honetakoa?, eta beste cosmos batekoa bada cosmos hori, bistan dago, goragokoa dela?. Nik hori ikasten dut behintzat haren signoak, aparatu handirik gabe, ikertuz. Eta nire demostrazioa ez da Platonen intuizioa bezalakoa, zeina ez baita demostrazioa berez, nire demostrazioa da ondorio erlazio bat egiazkoa, fenomeno historiko bat analizatuz gero egina. Eta jada hemen bat nator tomismoarekin, indartu egiten dudala ere afirmatzen ahal dut. Baina buelta bat egin ostean, buelta bat gaur egungo materialismoak inposatua. Aktualizatu egin behar izan baitut kausa formalaz teorizatzen zena eskolastikan. Lan astuna batzuetan.

13.- Eta Jesusen signoetan ikasten dena da Jainkorik bada-goela (hori nik egiten dut a priorizko metodoarekin, eta ez a posteriori), eta Jainkoaren aintzaz esan nahiko nuke zerbait. Gu denok gara momentu historiko batean sortuak, eta deituak gara inmortal izateko, baina Jainkoa (Jesusen arabera, aditu egin behar zaio, Trinitate Santua) eternoa da. Zer erakusten du horrek?, bada Jainkoaren baitatik gure baitara beti dagoela distancia bat infinitua, beti. Eta horregatik esaten da meza santuan

ezen Bera dela Santu den bakarra, nahiz eta guk, partizipazioz, badugun santutasuna iristeko modua, graziaz, jakina. Behintzat perfekziora deituak bagara, hau da, Haren Erresuman, ez dena cosmos honetakoa, sartzeko deituak gara. Eta hori soilik Haren errukiaz lortzen ahal dugu (hain baikara defektuosoak, hain falaziaz beteak gure hizpide pobreak), Haren graziaz, berba bakarra erabiliz. Eta hori diot kausa finalaz.

14.- Parte honen epilogo bezala afirmatzen ahal dut hemen gertatzen ahal dela problema matimatikoetan gertatzen dena, bide diferenteak egon daitezkeela problema bat argitzeko, soluzionatzeko, baina ondo egiazki daudenak bat datoz.

15.- Baina nik ezin dut dena abarkatu, anbizio larregia litzateke, eta zerbitzatu behar dut Jesusi imitatzen badiot, hur ematen badiot nire lanari hitz batean esanda. Beraz, ezin afirma dezaket primerako lana denik nirea, hobeak badaitezke. Eta Jesusek behin esan zuen zer zen Berari jarraitzea, hasteko norberaren burua ukatzea da, eta hori ez da masokismoa, eta bai zer bait hobe bilatzen duenarendako halako esperantza emate bat, eta Hari jarraituz nik ere, seguritate klausula balitz bezala, nik ere neure burua ukatu egiten dut. Nahiz eta ez dudan papelerara nire lantxo hau botatzen.

Azken batean nik daukat ezen, cosmos honetakoa izateko, nire lantxo hau dela ezagutzaren teoriarik konpletuena, edozein arlotan aplikagarria zientzien progresoa nola den argitze-ko, eta baita nora doan dena ere argitu egiten da. Papelerara ez, beraz, pixka bat rustikoa den arren nire estiloa, batere erretorikoa ez dena.

Inbokatzen diot Alejandriako santa Catalinari, filosofoen patroia, eska dezala niregatik ez nazatela hartu filosofo heretikoaren artean, egon egongo diren arren proposizio heretikoak nire izkribu zazarretan.

Nik dagoeneko ukatuak ditut nire izkribu guztiak, beraz, ez dago Elizan “fiskalik”, zitalenak ere, nire kontra ezer afirmatzen ahal duenik, halakoak ez dauka nondik heldu bere akusazioari, behintzat bekatu berbazkoetan. Kasu egiten badidate, jakina.

Amaitua dut nire argumentazioa, orain konsekuente izan behar naiz neure filosofiarekin.

Roman Garmendia.